

## PRENTSA OHARRA

# Magia eta tradizioen arteko Eguberriak, Baionan da!

## 2024ko azaroaren 2tik 2025eko urtarrilaren 5era

- 45 metroko gurpil handi bat
- Eguberrietako 6 desfile magiko
- Bi piroteknia hitzordu

**Eguberrietako magia Baionara itzultzen da. Euskal Herrian ezinbestekoa den gertakari honek, kultura, besta, tradizio eta merkataritza mailan, familia uneak agintzen ditu, harriduraren eta aurkikuntzaren artean.**

**Baionarrek animazio berriak aurkituko dituzte, hala nola argizko eta musikazko paradak, eta bi hitzordu pirotekniko berri. Halaber, gustuko dituzten animazioak berrikusiko dituzte, hala nola izei handia, gurpil handia (are handiagoa), edo Olentzero eta Bizar Zuri bezalako desfile anitzak, hiriaren bihotzean eta auzoetan emozioak bizitzeko. Herriko zerbitzuek, merkatariek eta Corso-ko elkarteek dekoratu magiko eta argitsuak diseinatu dituzte Hiria bere erakargarritasun ederrenez apaintzeko eta bertako biztanleei eta bisitariei zorioneko parentesi bat eskaintzeko neguaren bihotzean, tikiak eta handiak liluratuko dituen. Eguberria Baionan da dudarik gabe!**

Eguberriak Baionan, bere arrakasta egiten duten animazio tradizionalak eta ezinbesteko hitzorduak biltzen ditu, hala nola zaldiko-maldiko izei handia (17m), gurpil handia (aurten handiagoa, 45m eginen ditu, iaz baino 10m gehiago), Eguberrietako merkaturia (azaroaren 29tik urtarrilaren 5era irekia, artisauek eta gourmet txabolak biltzen dituen), Eguberrietako zirkua (abenduen 1era arte) edo desfileak.

Jacques-Portes plazan eta Errepublika plazan tikiendako eta doako jolasak izanen dira eta Euskaldunen plazan eta Gambetta plaza-baratzean atrakzioak eta zaldi-maldikoak egonen dira. Ohiko Bizar Zuriren tailerrak Merkaturiko plazan aurkituko du bere lekua, Bizar Zurirekin argazki oroigarri bat egiteko.

Eguberri aitzineko larunbatero, arte artisauek merkatu bat proposatuko dute Pelletier karrikan, tokiko pipitak deskubritzeko. Eguberriak Baionan ere solidarioagoa eta arduratsuagoa izan nahi du Eguberriko zein ganer hustuekin, auzoetan antolatuek, ongintzako kontzertu bat ospitalean eta hitzordua Toromagiarekin zezen-plazan, ospitaleratuak diren haurrentako. Hiriguneko eta auzoetako merkatariek ere joko handia egiten dute dekoratuekin, giroekin eta irabaztekoak diren opari kanpai batekin.

## Eguberrietako sei ibilaldiak

- **Eguberriko zirkua desfilea** – azaroaren 30a, larunbata **11:00etan** (abiatzea Roland-Barthes zabalgunea).
- **Pelutxen desfilea** – abenduaren 4, 11 eta 18an, asteazkena **15:00** (abiatzea Jacques-Portes plaza).

- **Bizar zuri eta bere leraren desfile berria – abenduaren 7, 14 eta 21, larunbata, abenduaren 8a igandea eta abenduaren 23a, astelehena 15:00etan eta 16:00etan** (abiatzea Jacques-Portes plaza). Bizar Zuriren desfilea, Zumbaiona, Les amis de Mouguerre eta secours assistance elkarteekin laguntzarekin, iratxoekin taileraz hornituta dago lera monumentala apaintzeko. Corso-aren artea inon ez bezala maneiatzen duten elkarte hauen ezagutza agurtzeko aukera.
- **«Les Ailes lumineuses» desfile musikala- abenduaren 15a, igandea à 17:30ean** (abiatzea Jacques-Portes plaza).
- **Olentzeroren desfilea – abenduaren 21a, larunbata 15:30ean** (abiatzea Xaho kaia) **eta 18:00etan** (abiatzea Roland-Barthes zabalgunea).
- **«Les luminéoles» desfilea- abenduaren 22a, igandea à 19:00etan** (Errobiko kaiak

## Pirotekniako bi hitordu

- **Eguberriko su artifizial handia– abenduaren 7a, larunbata 19:00etan** (Bastion Royal)
- **Musika eta piroteknia ikusgarria – abenduaren 14a, larunbata à 19:00etan** (abiatzea Jacques-Portes plaza).

## 5 aste animazio

Ohi bezala, asteburuak tematikoak izanen dira eta astean zehar ere animazioak iraganen dira:

- **Irekitze asteburua – azaroaren 29tik abenduaren 1era**

Eguberriko merkatuaren eta gourmet herrixkaren inaugurazioa eta abiatzea, azaroaren 29an, ostiralarekin, haur eta handien begiradapean, bizardun ospetsuaren agerpenean, hari baten gainean orekan, Errobi gainean. Ondotik, iratxoekin jaitsiera Herriko etxeko fatxadatik. Gurpil handiaren inguruan, musika animazioak eskoletako hurrekin eta argiztapenen abiatzea 17:30ean. Larunbat eta igandeetan Eguberrietako zirku emanaldiez gain, hiriko karrketan Eguberrietako zirkuko desfilea iraganen da azaroaren 30ean, larunbatez, 11:00etatik goiti.

- **Eguberrietako magia – abenduaren 4tik 8ra**

Aste magiko hau asteazkenetik aitzina hasiko da, Pelutxeen desfilearekin, 15:00etan, Baiona Handi eta Tipian Bizar Zuriren desfilearekin. Ondotik ikusgarri bat izanen da Eguberriko merkatuan. Asteazkenean ere, MVC Saint-Etienne-ek kontserbatorioko musika ikasleak errezibitzen ditu musika aperitibo batendako.

Bizar Zuriren desfileak bi ateraldi egingen ditu, Jacques-Portes plazatik larunbatan eta Espainia karrikatik igandean, 15:00etatik 19:00etara; eguberriko su artifizial handia Bastion Royal gunetik jaurtiko da. Igandean, Toromagie zezen-plazara itzultzen da, zezenketa-hitzordu solidario baten eta Ospitaleko Haur Eri elkartearentzako jostailu bilketa tradizionalaren kari.

Asteburu honi amaiera emateko, Laugako Ines Reg ikuskizunaz gain, Santa-Gurutzeko elizan Eguberrietako kontzertua antolatua da Harmonie Bayonnaise eta Xaramela abesbatzarekin.

- **Liluramendua – abenduaren 11tik 15era**

Abenduaren 11an, asteazkenez, liluramenduzko egun bat, batez ere haurrendako, lehen haurtzaroko ikusgarri batekin Paul Bru gelan eta pelutxeen desfilea Baiona Handian eta San-Izpiritu auzoan. Aipatzekoak dira ere 3 kontzertu aste honetan: Anne Etchegoyen, Aizkoa eta Blues Band Orkestra ospitalean, gospel kontzertua Saint-Etienne auzoan eta Haiz Egoa abesbatzaren kontzertua Santa-Gurutzen.

Hiru berritasunek markatuko dute aste hau, zango-luze argitsu bikote baten presentziaren egotea Bizar Zuri eta bere iratxoekin Herriko etxeko fatxada jautsiko duten unean, Akouma konpainiako musika eta piroteknia ikuskizuna, su hezitzaileak ere deitua, eta «Les Ailes lumineuses» desfilea, non belgartzek, paumek eta tximeletek hegoak hedatuko dituzten hiriaren bihotzean.

- **Ohituren Eguberriak – abenduaren 18tik 22ra**

Tradizioen eta oporren hastapeneko asteburu honendako, magia indartuz doa Baionako karrketan, abenduaren 21ean larunbatez, 10:00etatik goiti, Olentzero egun berezi batekin. Mutxiokoak,

kantuak, txistorra gaua, Olentzeroren desfile musikatuak eta zuzietarat joanak, egun hori erritmatuko dute.

Kontzertuak, musika animazioa, familia ikusgarria eta haurrendako ikusgarria... E eguna alaitzeko aitzin. Berrikuntzen artean, «Les luminéoles» ikuskizun poetiko eta airezko batendako desfilea aipa dezakegu, igandean.

- **Eguberriak oporretan – abenduaren 23tik urtarrilaren 5era**

Eskoletako oporren hastapenean, Bizar Zuriren leraren azken agerpena izanen da abenduaren 23an, astelehenez, bukaera distiratsu baten eta azken agur baten kari, bere opari bira egin aitzin. Abenduaren 24 eta 31an, astearteetan, musika animazioak izanen dira; pottokaren gaineko ibilaldiak abenduaren 26tik 28ra eta urtarrilaren 2tik 4ra itzultzen dira.

### **EGUBERRIAK PRAKTIKAN**

- Hirigunea eta San Izpirituko hara-honakoekin, Hirigunea eta San-Izpiritu zerbitzatzen dutenak 7:30etik 19:30era.
- Errelebo-aparkalekuak eta auzoak zerbitzatzen dituen Txik-Txak sarearekin
- Aparkalekuei dagokionez, lehen ordua urririk da (1:30 Laugan hesi estaliak edo gainazalekoak diren aparkaleku guzietan (De Gaulle salbu), estaliak diren aparkalekuak bereziki irekiak dira abenduko igandeetan 10:00etatik 19:00etara. Oroitaraztekoa, errepidean aparkatzea doakoa da larunbat arratsaldeetan, igandeetan eta besta egunetan.
- Merkatua 1900ak arte irekia izanen da abenduaren 24 eta 31an.

Baionako Eguberriko egitarau osoa [www.bayonne.fr/](http://www.bayonne.fr/) gunean eskuragarri da

Baiona Hiriko prentsa harremanak - 05 59 46 63 01 - [presse@bayonne.fr](mailto:presse@bayonne.fr)